



ZORRAREN BIGARREN ORDAINKETA

2013ko ekainaren 28an Gizarte Ekimeneko Ikastetxeetako Hitzarmenaren negoziazio-mahaia osatzen dugun sindikatu eta Patronalek 2010eko ekaina eta 2012ko abenduaren artean ikastetxeek sortutako zorra ordaintzeko akordio partziala sinatu genuen. Akordioan zor guztia ordaintzeko hiru epe adostu ziren : lehena , 2013ko urriaren 31 ; bigarrena, 2014ko maiatzaren 31a baino lehen , eta azkena 2015ko urtarrilaren 31 baino lehen. Akordioak ere, eten egiten du 2010ko ekainetik 2012ko abendua bitarteko zorra erreklamatzeko epea.

Beraz, ikastetxeek maiatzaren 31 baino lehen 2011ko maiatza eta abendu bitarteko zorra ordaindurik izan behar dute. Horrela izan ezean, langileak demanda jarri diezaioke enpresari kantitate-erreklamazioaren bitartez.

Ikastetxeak diru-kantitate horiei dagokien nomina eman behar du eta garrantzitsua da oso berrestea nomina horretan adierazten diren diru-kantitate gordinak bat datozela aipatu aldiko zorra osoarekin. Hurrengo taulan adierazten dira 2011ko maiatza eta abendu bitarteko oinarriko soldatari eta hirutekoari dagozkion zorrak -beti ere kantitate gordinak-.

Haur Hezkuntza 1.go zikloa -IRAKASLEA-	Oinarriko soldata gordina	1.078,57 €
	Hiruteko bakoitzeko gordina	20,55 €
Haur Hezkuntza 1.go zikloa -TEJI-	Oinarriko soldata gordina	741,37 €
	Hiruteko bakoitzeko gordina	16,27 €
Haur Hezkuntza 1.go zikloa -laguntzailea-	Oinarriko soldata gordina	644,92 €
	Hiruteko bakoitzeko gordina	16,77 €
Haur Hezkuntza 2. zikloa, Lehen hezkuntza eta erdi-mailako tituladunak	Oinarriko soldata gordina	404,80 €
	Hiruteko bakoitzeko gordina	21,80 €
DBH 1.go zikloa	Oinarriko soldata gordina	400,70 €
	Hiruteko bakoitzeko gordina	21,80 €
DBH 2.zikloa, batxilergo, Prestakuntza-zikloak, HLPP eta goi-mailako tituladunak	Oinarriko soldata gordina	743,30 €
	Hiruteko bakoitzeko gordina	41,70 €
Hezkuntza-laguntzako espezialista	Oinarriko soldata gordina	362,00 €
	Hiruteko bakoitzeko gordina	7,05 €

ARABA: Eulogio Serdan, 5 01012 Gasteiz ☎ 945 14 11 04 📠 945 14 43 02 araba@stee-eilas.org

BIZKAIA: Nikolas Alkorta, 3 (Zabalburu) 48003 Bilbao ☎ 944 10 02 98 📠 944 10 13 60 bizkaia@stee-eilas.org

GIPUZKOA: Baso-txiki, 30-34 (atzealdea) 20015 Donostia ☎ 943 46 60 00 📠 943 45 36 27 gipuzkoa@stee-eilas.org

NAFARROA: Joaquin Beunza 4-6 behea 31014 Iruñea ☎ 948 21 23 55 📠 948 22 97 90 nafarroa@stee-eilas.org